

*Jolastu eta ikasi
Elkanorekin*

***Magallaes
itsasarte***

Jolastu eta ikasi Elkanorekin *MAGALLAES ITSASARTEA*

San Julian badiako bizipen izugarrien ondoren, gure espedizioaren hondarrek kontinentearen hegoalderantz nabigatzen jarraitu zuten, Ozeano Barerako pasabidea topatzeko esperantzaz.

1520ko urriaren amaieran, kanal labirinto batek osatutako badia bat topatu genuen. Magallaesek bi ontziri horiek esploratzeko agindu zien. Hiru egun beranduago, berri onarekin itzuli ziren: bi ozeanoak lotzen zituen itsasartea zen!



Pasabide hori gurutzatzea, ordea, ez zen erraza izan, kostako labarrak estuak eta oso arriskutsuak baitziren. Gainera, kanala gero eta estuagoa zen. Gogoratu dezagun ez genuen inguruko nabigazio maparik.

Beraz, gure estrategia mailaka aurrera egitea izan zen. Ontzi batek aurrera egiten zuen, bide seguru baten bila, eta gero besteengana itzultzen zen haiek gidatzeko. Horixe egin genuen behin eta berriz, itsasarte osoa egin arte. Pasabidea gurutzatu bitartean, kostan bertako biztanleek piztutako su ugari ikusi genituen. Hortik dator lurralde horri jarri genion izena: Suaren Lurraldea.

Azkenik, eragozpen askoren ondoren, 38 egun beranduago, itsasartea gurutzatzea lortu genuen. Horrekin batera, gure ametsa bete genuen, azkenean... Gure aurrean Ozeano Barea azaldu zen. Ordura arte “Hegoaldeko Itsasoa” izenez zen ezaguna, baina Magallaesek berak jarri zion “Ozeano Barea” izena, hain zegoen bare.

Hala ere, gure zailtasunak ez ziren bukatu Magallaes itsasartea izena hartuko zuen pasabidea gurutzatutakoan. Hasi ere ez ziren egin.